

ESKOLAKO AGENDA 21en GIDA



Iraunkortasunerako hezi

Eskolako Agenda 21 da iraunkortasuneko hezkuntza- eta prestakuntza- estrategiarik garrantzizkoena, eta udalerrietako ekintza-planen lerro nagusietako bat bihurtzen ari da

Eskolako Agenda 21ek hedapen handia izan dute gure artean nahiz nazioartean. Gaur egun milioika pertsona ari dira programa hori lantzen eta, beraz, Planetaren iraunkortasunaren alde egiten. Hori dela eta, 2007. urtean UNESCOk, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkadaren barruan, jardunbide egokitzat hartu du programa hori.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan 2001. urtetik aurrera, Tokiko Agenda 21 programak hasi ziren garatzen. Egoera horrek eskola eta udalerrien arteko sinergia sortu zuen, eta aukera bikaina zabaldu zuen beren ingurumen-programak uztartzeko. Modu horretan hasi zen garatzen, 2003. urtetik aurrera, Eskolako Agenda 21, eta urterik urte gero eta ikastetxe gehiago ari dira parte hartzen. Izan ere, 2007/2008 ikasturtean derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeen erdiak baino gehiago aritu dira Eskolako Agenda 21 garatzen.

Ikastetxeen, Eusko Jaurlaritzako bi sailen –Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila– eta udalen arteko lankidetzan oinarritzen den programa da, eta, horri esker, baliabide eta laguntza ugari ditu (ekonomikoak, aholkularitza, prestakuntza...).

Oso tresna eraginkorra da Euskal Curriculumaren oinarriko kompetentziak garatzeko, eta, beraz, XXI. mendeko herritar arduratsu eta konprometituak hezten laguntzeko.

Gainera, Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) dokumentuan jasotzen diren helmugak (kutsadurari aurre egiteko, biodibertsitatea babesteko, klima-aldaketaren eragina mugatzeko...) lortzen laguntzeko bitarteko hobe zina izan daiteke Eskolako Agenda 21.

Zer da Eskolako Agenda 21?



Ikastetxearen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza-programa bat da. Komunitatearen partaidetzan oinarritzen da, eta udalerriko garapen iraunkorrean esku hartu eta laguntzen du.

Ingurumen-hezkuntza programa bat denez, ingurumen-arazoaren konponbidean parte hartzeko ezaguerak, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa garatzea da haren xede nagusia.

Programaren ezaugarri garrantzizkoenak hauek dira:

- Bi eremu lantzen ditu, **eskola** bera eta **udalerria** edo eskualdea.
- Hezkuntza-komunitatearen **partaidetza** du ardatz eta oinarri, eta ikasleen protagonismoa bilatzen du.
- **Kudeaketa** arduratsu eta iraunkorra sustatzen du.
- **Curriculum**-berrikuntza eragiten du.

Norentzat da Eskolako Agenda 21?



Hezkuntza-komunitate osoari zuzentzen zaio:

- **Irakasleak** dira programaren dinamizatzaileak eta curriculumaren egokitzapenaren arduradun nagusiak.
- **Ikasleak** benetako protagonistak dira fase guztietan.
- **Familiek** parte aktiboa dute ikastetxean, antolamenduan eta jardueretan arituz eta etxean eredu arduratsuak eskainiz.
- Langile **ez-irakasleak** programaren antolamenduan, diagnostikoan eta kudeaketan parte hartzen dute.



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



<p>Nola antolatzen da Eskola Agenda 21?</p> 	<p>Beharrezkoa da antolakuntza berezi bat, eta horrek eskolaren egituraketan txertatuta egon behar du. Arduradun eta egitura hauek ezinbestekoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Koordinatzaileak proiektua martxan ipintzen du eta jarraipenaren ardura nagusia du. • Talde sustatzailea irakasleek eta, ahal den neurrian, zuzendaritzaren ordezkari batek osatzen dute. Bere zeregin nagusiak eguneroko dinamizazioa eta antolakuntza dira. • Ingurumen Batzordea ikastetxean hezkuntza-komunitateak parte hartzeko organoa da, eta estamentu guztien ordezkariak osatzen dute. Programaren lerro nagusiak zehazten ditu (planifikazioa, ekintza-plana, ebaluazioa...). • Koordinazio-bilerak ikastetxeen arteko lankidetzaren gunea dira. Eskualdeko koordinatzaileak, Ingurugelako aholkulariak eta enpresako ingurumen-hezitzaileak osatzen dituzte.
<p>Zeren inguruan lantzen da Eskolako Agenda 21?</p> 	<p>Eskolako Agenda 21 gai edo arazo baten inguruan garatzen da, eta, horretarako, programaren helburuak ditu oinarri eta erreferentzia.</p> <p>Iraunkortasuna oso kontzeptu zabala da, eta gai ugari hartzen ditu bere barnean. Guztiak dira baliagarriak programa garatzeko. Horien artean hauek aipa daitezke: biodibertsitatea, klima-aldaketa, ura, hondakinak, energia, kontsumo-ohiturak, garraioa eta mugikortasuna...</p> <p>Gaiaren garapena hiru ardatz edo esparru hauen inguruan egiten da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza-komunitatearen partaidetza. • Kudeaketa iraunkorra. • Eskolako curriculum-berrikuntza.
<p>Nola garatzen da Eskolako Agenda 21?</p> 	<p>Bost fase nagusi ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Antolamendua eta planifikazioa: antolamenduaren oinarriak (koordinatzailea, talde sustatzailea...) eta hasierako planifikazioa zehazten dira. • Sentsibilizazioa eta motibazioa: behar-beharrezkoa da hezkuntza-komunitatearen partaidetza lortzeko. Egitan berezi baten bidez egitea komeni da. • Diagnostikoa: ikastetxearen hasierako argazkia edukitzeko balio du. Horretarako, programaren hiru ardatzak hartzen dira kontuan. Bestalde, udalerraren egoeraren azterketa egiteko une aproposa da. • Ekintza-plana: fase honetan definitzen eta planifikatzen da ikastetxea eta haren inguru hurbila iraunkorrago egiteko ekintzen multzoa. Plana garatzeko hobekuntza-helburuak eta horiek lortzeko ekintzak zehazten dira; gainera, lorpenak neurtzeko adierazle batzuk azaltzen dira. • Komunikazioa eta Ebaluazioa: prozesu osoan egiten direnez, eta izaeraz eta ezaugarri ezberdinak direnez, fase berezia osatzen dute.
<p>Nola komunikatzen da Eskolako Agenda 21?</p> 	<p>Komunikazioaren asmoa da Eskolako Agenda 21en ibilbidea eta emaitzak ezagutzera ematea eta hezkuntza-komunitateko kide guztiengana iristea. Fase honetan foroek garrantzia berezia dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskolen arteko Foroa: udalerrir edo eskualde bateko ikastetxeetako ikasleek osatutako organoa; Eskolen Udal Foroak prestatzeko biltzen da. • Eskolen Udal Foroa: ikasleek ikasturtean egindako lanaren emaitzak, konpromisoak eta proposamenak tokiko arduradunen aurrean (alkatea, zinegotziak...) aurkezteko topalekua.
<p>Nola ebaluatzen da Eskolako Agenda 21?</p> 	<p>Ebaluazioak Eskolako Agenda 21 berraztertzeko, balioesteko eta hobetzeko balio du. Komeni da ikasturtean zehar egitea, baina proiektuaren amaiera da memento egokia helburuen lorpen-maila jakiteko eta ibilbidean egindakoa balioesteko.</p> <p>Ebaluazioak hiru une ditu, eta horietan hauxe egiten da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hasierako ebaluazioa, diagnostikoaren bidez. • Ekintza Planaren ebaluazioa, hobekuntza-helburuei lotuta dauden adierazleen bidez. • Amaierako ebaluazioa, ekainean aurkezten den memoriaren bidez. Programaren osotasuna baloratzen du, bai ibilbidean egindako lana, bai erdietsi diren lorpenak.